

Euskera erro eta gara

Bittor Kapanaga



Lan guztiak I

Euskaldunon
hizkuntza eta ikuskera

Bittor Kapanaga

Lan guztiak I

Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Aurre lanak: Enrike Alaña, Patxi Alaña, Aintzane Lazkano,
Gontzal Mendibil, Jose Mari Ugaldea 'Willy'

Egilea: Bittor Kapanaga

Argitaratzailea: Gerediaga Elkartea

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Azaleko eta portadatxoetako argazkiak: Maritxu Goikoetxea

Azala: Gertu Inprimategia, Oñati

Argazkiak: Kapanaga-Alaña familia, Maritxu Goikoetxea, Gontzal Mendibil, Euskeraren Jatorria, Juan San Martin Fondoa, Gipuzkoa Net, Wikipedia

Solapako argazkia: Marisol Ramirez/ Argazki Press

Argitaratze data: 2014ko urria

Maketazioa eta inprimaketa: Gertu Inprimategia, Oñati

© Bittor Kapanagaren familia

© Gerediaga Elkartea

© -cc-by-sa (Creativ Commons)

Lege Gordailua: SS-1325-2014

ISBN: 978-84-940017-9-6

Euskera batua eta euskalkiak

Bittor Kapanaga



- *Euskera Batua eta euskalkiak* orain argitaratzen da lehen aldiz.
- 1984ko Gabonetan Eibarren egin zen *Euskara, Euskalkiak* jardunaldietarako pres-tatu zuen hitzaldia da. 222. orrialdean ikus daiteke programa.
- Originala makinaz idatzita dago, txukun, eskuz egindako zuzenketa batzuekin.
- Liburu hau inprimategira eramatear genuela aurkitu genuen originala bere paperen artean, eta horregatik ez dugu hemengo aipurik sartzeko astirik izan biografia ata-lean.

1

Euskera batuaren arazoak

Herri baten kiriodura eta kultura baten odola bezela dela hizkuntza bat ontzat ematen badugu, zalantza bakoia dugu gaur Euskal Herrian euskerak duen garrantzia ikaragarria dela, beronek ematen bait dizkio izana eta izena ere gure Herriari. Euskera hilgo balitz, gehiago “Euskalerririk” ez legokeela, eroek ere ulertzeko gauza da.

Eta gaur euskera bizirik aurrera ateratzeko ekintzan, ezinbestekoa da standar hizkera bat erabiltea, herri-bizitzako aribide behinenetan behintzat. Administralgoan, telebistan, irrati nagusienetan, goi-mailetako ikasketetan, merkataritzan, etab, etab.

Euskal Herria osoan harturik ere, aski txikia da gaur egun kultura eta hizkera mota hain bereziak bizirik eta tinko iraunerazi ahal izateko, inguruko indoeuropar hizkuntza eta kuturak uriola batek bezela erasotzen gaituelako, edo gaituztelako, bai kanpotik eta bai barrutik ere. Beraz, euskalki bakoitzean oinarrituz egin behar bagenu hil-edo-bizizko burruka hori, hasi aurrez galdua genuke gure ekintzaren helburua. Bestela ere (bateraturik ere) ez bait da erraza izango nahi dugun garaitza lortzea.

Eta estandar hizkera baten beharra ezinbestekotzat emanez gero, hizkera mota horren arazoak sortzen zaizkigu:

1. Hautabideak

Hizkera eredu hori hautatzeko orduan inola ere ahaztu behar ez dena zera da, gizarte baten bizitzan hizkuntza dela langailurik garrantzitsuena eta beharrezkoena, beste arigailu guztiek baino eragin haundiagoa izango duena bere gain. Beraz, standar hizkera hori moldatzean honako hau izan behar litzateke xede nagusia: gaurko gizartearen esku, gaurko bizikerari erantzun ahal izateko langailu egoki bat ezartea.

Beraz, literaturako balio eta bitxikerietan oinarritutik klasikoen hizkera mota bat edo bestea eredutzat aurkeztea, edo txokokeria eta sentimenkerietan oinarriturik bakoitzak bere eskualdeko hizkera mota besteen gain ezarri nahi izatea euskeraren aurkako jokatibidetzat egotzi daitezke, euskaltasun sutsuz edo abertzaletasun biziz eginak izan arren ere.

Izan ere, eta egun larrietan, eraso guztiak batera gure hizkuntzaren bizia hiltzorian ezarri izan dutenean, hautabide ekintzari edo hautaketa zereginari hasiera eman izan zaio, eta standar hizkeraren izendapena ere egina izan da: EUSKERA BATUA.

Izanak izena sortzen badu, izenak izana agertu behar du, zaharren esakeren arauerara. Gaurko egunetik begiratur, urrats positibotzat jo dezakegu hautaketa hasiera hau, eta guztiz egokitzat erabakitako izendapena. Akatsak eta hutsuneak ere izan direla esan daiteke, bihozberotasunezkoak eta gehiegikeriazkoak beharbada, baina euskaldunon herrian eta honelako egoeran ez da harrizkeoa hori. Edozein ikuspegitik begiratur ere, arazo honen egintza azpitik gora sortua izatea, herriaren eta batez ere gazteriaren arnasaz sortua izatea esan nahi dut, oso positiboa izan dela uste dut.

Baina hizkera hori garatzea da bigarren urratsa, guztiontzat garrantzi handia duen zeregina, hizkuntza eta hizkuntzadunak aldi luze batetarako markatuko dituen.

2. Garabideak

Gaur euskera batua beharrezkoa delako ustea, erroak emandako eta indartutako landara dugu. Eta standar hizkera honi behar duen osotasuna, aberastasuna eta zabaltasuna ematen diogunean, ez da izango inor, xede onez eta asmo zuzenez ari denik, euskera batuaren aurka izango denik. Besteak, “el euskera batua es un crimen” erderaz esaten dutenak, euskeraren etsaiak dira, ez euskera batuarenak soilik. Eta holakoei jamonik ez egitea da egokiena.

Baina euskera batuaren garabideak txarragoak edo hobeagoak izan daitezke, egokiak edo ez egokiak, buruz asmatuak edo bihotzez bultzatuak. Eta honetan datza arazoaren gakoa, arazo hau nola burutzen denean dago ekintzaren helburuetara heltzea edo ezin heldu izatea.

Euskera Batua izenak argiro adierazten digu euskalki guztietan sakabanaturik diren hizkuntza balioak **batu** behar dituen hizkera mota bat izango dela aukeraturiko hizkera standar hori. Eta horrela izan beharko du, euskal gizartearentzat arigailu on eta egoki bat izango bada.

Beraz, euskaldun guztiok zerbait ikasi beharra dugula, euskera batua gezur minkaitz bat izango ez bada, guztion buruetan barruraino sartu beharra dago. Sortalde edo ekialdekoak, erdialdekoak eta mendebaldekoak, guztiok euskaldunak gara, maila bereko euskalkideak. Guztioi dagokigu euskera batuaren aurrean burua makurtu beharra, eta era berdinean geure mintzaira motaren aberastasunak hizkera standarrerako eskaini beharra.

Beraz, euskalki bakoitzean barruko direnek, edo garenok, beste euskalkietako zerbait ikasi beharra dugu, benetan euskeraren alde jokatu nahi badugu. Eta honetan inork ere ez du izan behar buldarik, nahiz eta batzuk beste batzuk baino gehiago nekatu beharko duten. Esaterako, euskera batuaren hasieratik zatirik haundiena gipuzkeratik hartua izan denez (aditz laguntzailearen arazoa), jakinekoea da gipuzkeradunek askoz neke gutxiago izan behar dutela hizkera standarra ikasteko. Baina honek ez du esan nahi ezertxo ere ikas-teke geratu daitezkeenik. Eta hau ere esan beharra dago, geroago eta hedatuagoa baitaibil honako esames hau: Donostia aldeko euskalzale askok ez duela agertzen asmo txikiarik

ere beste euskakietako hitz bat bera ikasteko badaere. Benetan, horrelako zerbait gertatzen da, eta honen erakusleak asko ditugu. Mendebaltarrek gipuztarren *anai-arreba* esatea ikasi behar dute, beraiek duten *nebarreba* askoz egokiagoa baztertuz, edo *kasu egin*, beraien *jamon* edo *jaramon* baztertuz. Eta ikasi egiten dituzte. Alderantziz, arestian irakurri izan dut gipuzkoar batek egunkari batetan agerturiko idazlan bat, eta idazleak mendebaldeko euskalkia ere aintzat hartzekoa zela erakusteko edo, *neba* hitza zerabilen. Erabili bai baina Sabino Aranaren “nebaz” ari zen. Ez ote dute, bada, gipuzkeradun horiek horrelako gauza erraz bat ikasteko gaitasunik ere? Baina arazoa besterik da. Amets gozoa egin izan dutela zenbaitek beren euskalkia dela onena, zuzenena, politena, erdikoenena, etab. Beraz, ez dutela ezer ikasi beharrik besteetatik. Eta horren ondorioz sortzen den joera euskera batuaren aurkako joera da, beste joera ezagun batzu bezin joera gaiztoa. Beraz, iratzarri egin behar dira, eta amets hori gezur huts bat dela adierazi behar zaie.

Arazo aski larria dugu hau ere, eta “banderizoen euskalki madarikatuak”, “lau katuk mintzatzen dituzten euskalki horiek”, eta horrelako esaldi famatuz estalia utzi ezin daitekeena.

Euskal Herriaren etorkizuna, Herri bezela, euskerarengan dago, eta euskeraren etorkizuna euskera batuarengan; beraz ez dugu txantxetako kontua. Oraingoan huts egiten badugu, etorkizunak agertuko du gure lotsakizuna.

murua Primitivo Bengoa Cámara
 #3 arte-jai S. Pedro - Bekoetxalde.

noz	hau	daigun
gare	gaitu	daidexu
zarie	zaitu	
dira	zaitue	
nintzen	naudie	
zinen		
ginen	dxatzue	dost
ziren	dxakie	dustie
	dxako	dotsue
dozue	dxaku	dotsuz
daurie	dxat	dotsie
dozue	dxakie	dotsun
dot		geuntsun
		dotzo
		dotroz
genduen	banintze	nindun
zenduen	baziñe	
zendun	nintzake	
neuen		
euren	naiten	
	gaitozan	
	zaitozie	

■ Muruan (Zigoitia) hango azkenetariko euskaldunari Bitorrek eginiko galdeketa.

Hitza
usteak

sortu
garatu

aditu
alderazi

erabili

Hizkera
usteak

izatasunezkoak

↓
go

↓
iz

↓
ar/ur

itezkoak

↓
in

↓
ein
egin

↓
i-n

↓
uk

↓
ukan
euki

↓
du

getasunezkoak

↓
ge

↓
iz

↓
u

2

Sorbideak eta helburuak

1. Izenak izana behar du

Euskera Batuak bere izenari erantzungo badio, izenak izana agertu behar badu, eta areago, zentzuzko egintza bat egingo badugu, EUSKERA BATU eder bar osatu, bizkortu eta hedatu beharra dugu. Eta hau honela egiteko, hizkera standarrerako sorbideak ondo ikertu eta finkatu beharra dago. Eta ez murgildu susmakerietan; euskera batuaren sortze bidean egindakoa hor dago, eta ez dago horren aurka aritzerik. Baina egiteko dagoena, tinkotasun eta aberastasun bat ematea batez ere, askoz gehiago da, eta oraindik asko jokatatu behar da, landare hori zuhaitz eder bilakatuko bada.

Izan ere, zuhaitz baten irudiz ikusi behar dugu euskera batua, sustraiak euskalkietan dituen zuhaitz bat bezela. Eta ez badakigu ere, jakin behar genuke zuhaitz bati adarrak inausi lekizkiokela, baina ez zaiola ebagi behar sustrairik. Bestela, ziztrindu edo igartu egingo litzateke.

Beraz euskalkiak dira **euskera batua** zuhaitzaren sustraiak edo erroak, eta hauetatik hartu behar du bizia, hazteko indarra, joritzeko gaia eta iraun ahal izateko odola. Beraz, argiro dago gaur euskalkiak galduko balira ez genukeela lortuko funtsezko euskera baturik, eta euskerarenak egingo lukela. Bai, hila litzatekeela.

Euskalkiak bizirik iraunerazteko eta euskera batua aurrerantz atera ahal izateko, bisuon arteko oreka bat lortu beharra dago.

Oreka hori nola lortu daitekeen, herri-gizonen (edo gizakien hobeto) zeregina da, garrantzi handia duen zeregina. Batez ere neurri arazoa da horretarako giltzaren izatea: non, noiz, nola eta zein heinetan euskalkiak, eta non, noiz, nola eta zein heinetan euskera batua. Bihotz beroz, baina buru hotzez ikertu eta erabaki beharreko arazoa.

Badugu beste arazo larri bat ere arlo honetan: hizkuntzaren aberastasunak jagon beharrekoak direla, eta beroiek euskalkietan sakanabaturik ditugula. Izan ere, aberastasun guzti horiek hizkera standarrean biltzeko urte askotako lana eta ekintza behar da, beraz berehala eta erabat egin ezin daitekeen lana da.

Eta gure hizkuntzak ezin du jasan aberastasun horien zati handi bat bazterrean utziz erdoildu eta galtzen uztea, lehendik aski galdurik duelako. Auzia ez da zelabaiteko eus-

kera bat salbatzea, ahal denik aberatsena eta osoena aurrera ateratzea baizik. Beraz, astiro eta epeka, baina ekintza bizian, euskalkietan sakabanaturik diren hizkuntza balio guztiak hartzen joan behar dugu.

Lan handia, ederra eta garrantzitsua, baina zuhurtasun handiz egin beharrekoa, batez ere aukera egitean.

2. Aukerabideak argitu beharra

Euskera batua osatzeko zereginean, eta aukerabideak hartze orduan batez ere, eritzi arras ezberdinak agertzen dira euskalarien artean. Batzuen ustez, testu idatziak bakarrik hartu behar dira iturburutzat eta literaturan oinarritu beharko du hizkera standarrak. Beste batzuen ustez, euskera bizian, euskera erabilian bilatu behar da horretarako iturria. Azkuek berak ere, auzi honetaz ariz, “la lengua hablada tiene verdadera soberanía en nuestro caso” idatzi izan zuen.

Testu idatziei eta literaturari erabateko garrantzia ematen diotenek euskerari begira baino gehiago erderari begira egosten dituztela beren eritziak esan daiteke; izan ere, erromantzeen sortzea eta beroietako literaturaren sortzea ia aldi berean gertatu izan dira, beraz literatura da kasu horietan hizkuntzaren historiaren espilua eta ardatza.

Baina euskeraren kasua besterik da. Dugun literaturak bostehun urtetik beherako zahartasuna du, mende asko aurreragotik galtzorian eta batez ere zatikaturik aurkitzen den hizkuntza batetan. Argiro ikustekoa da literatura apur horrek hizkuntzaren erroetako balioetatik zatitxo bat bakarrik eskaini diezagukela, *Gero* baten balioak oso arretagarriak direla jakin arren ere.

Literatura horretako testu bakoitza gizaki batek, eskualde batetan, garai zehatz batetan egina dugu; beraz euskalki baten une batetako lekukoa dugu; agian izan daiteke euskeraren zatikatzearen ondorioz geratu izan zaigun ondorenik balioetsuena, baina baita ere, agian txarrena ere izan daiteke. Beraz ez dugu izango, ziurtasunez behintzat, euskeraren oinarritzko batasuna berreskuratzeko bide segurua.

Bestelako ahultasunik ere badute testuek: hor dugu lekuko *Refranes y Sentencias...* delakoa, guztien artean itzaltsuena beharbada, euskalariak arretarik haundienez ikertzen ahalegindu izan direna bai behintzat. Eta nire eritzi apalez, testu horretatik atera izan diren hizkuntza-eritzirik nagusienak behintzat gezurkumeak ditugu, agiango gezur batzuetatik ateraziak izan direlako. Eta eritzi horietantxe oinarritzen dira euskerari buruzko gaurko filosofiaren zutabe batzu. Argi gehiagotan, zabaltasun gehiagoz eta sakontasun haundiagoz ikertu beharrean dira horrelako testuak, aiputako hau behintzat. Eta beroien iturburua den euskalkia ondo ezagutuz batez ere.

Euskalki ezberdinetako hizkuntza erabiliaren parekatze bat eginez, izugarritzko nahaspildura bat agertuko zaigu, edonori beldurra sartzeko bezelakoa. Baina, hain zuzen, arlo honetantxe dugu, berriz diot, nire eritzi apalez, hizkuntzaren barreneko atonduretara heltzeko biderik zuzenena. Adibidez: erderazko “pasar” ustea adierazteko bariante piloa dugu, euskalkiak beste edo gehiago; literaturaren eraginez eta, lapurterazko *iragan* eta bizkaierazko *igaro* bakarrik ditugu onartuak. Baina zuberorazko *igan*, erronkari-

razko *igari*, eta *igaran*, *igare*, *igaren*, *igazi* etab. parekatuz ikertuak izan balira, *igan* forman egoala konponbidea izango zen ondorioa. Eta *iragan* forma aditz berorren beste maila bat dela, agian. Eta hemen gaur adierazteko astirik ez dugun beste zenbait gauzatxo ere argiturik utziko genituen. Baina gure hizkuntzaren erroetako atondurak arakatzen has-tea zorakeria bat da zenbaitentzat. Erromantzedunen bidea jarraitu behar dugu, auzokoen aurrean lotsagarri ez izateko.

Jokabide honen ondorena dugu gaur euskerari buruz ziurtasunik eza izatea zenbait arlotan. Esate baterako: euskaldun berrien artean nahasketa izugarria izaten da ea noiz -**te** atzizkia eta noiz -**tze** erabili aukeratzean; mendebaldeko euskalkiz mintzatzen diren baserriarregana hurbilduz, harrigarriro betetzen dituzten arauak badituztela ageri zaigu; beraz, zergatik ez arau horiek ikertu eta euskeraren erraiak arakatzen saiatu?

Berdin esan dezakegu negatibo arloari dagokionez, agian euskerak duen arlorik muriztuena, baina berriztatze eta konponbide aski argia duena.

Eta “infinitebo” eta “partizipio” kontuan dugun nahaspildura, nire eritziz erderazko konparaketak eginez sortua izan dena, berrikertu beharra dagoela uste dut, eta ez luzaketak eginez, berehala baizik. Ezin dugu jarraitu horrelako funsgabetasunean eta ziurtasunik ezean: *ikusi*, *ibili*, *jantzi*, *isildu*, *arduratu* “partizipioak”, eta *eman*, *egon*, *ari* etab. “infiniteboak”. Eta *gizondu*, *umetu*, *zimeldu* eta horrelakoak, zer?

Erderabideak erderarentzat utzi eta euskerabideetan barrenago sartu beharra dugu la uste dut. Hala elite batentzako hizkera bat sortzea ote da helburua? Arau nahaspilduraz betea, ziurtasunik eza nonnahi duen hizkera bat, elite dizdirati batek interpretatu beharko duen hizkera bat izango da beti. Alderantziz, arauak argi eta garbi dituen, eta arau horietara ondo loturik den hizkera bat gizarte batentzako langailu bikain bat izango da. Beraz, honetan, auzia argi dago: elite batentzat jostagarri, ala herri batentzat baliagarri izan behar duen hizkera mota bat antolatu nahi dugun erabaki behar dugu lehenik.

Agerian dago, orain artekoan behintzat, euskera batuaren bultzatzaileak zurtz aurkitu izan direla sarritan, araurik ezaren eraginez.

EIBARKO
UDALA

euskara euskalkiak

1984ko Abenduaren 26, 27, 28

1985ko Urtarrillaren 2, 3, 4

Tokia:

EIBARKO UNIBERTSITATE LABORALA

INTERNATU GISA



Caja de Ahorros Municipal
Aurrerki Kutxa Municipal

PROGRAMA

ABENDUAREN 26an:

ADMINISTRAZIOA - IRRATIA

- PAKO GARMENDIA - J. M.^a OTERMIN
- 12½tan apertura ofiziala (Juan SAN MARTIN, Imanol LASPIUR)

ABENDUAREN 27an:

(INGURUKO EUSKALKIAK)

- J. L. DAVANT - BITTOR KAPANAGA

ABENDUAREN 28an:

(LITERATURA)

- B. ATXAGA - L. M.^a MUGIKA

URTARRILLAK 2:

(SOZIOLINGUISTIKA)

- BAXOK - TXILLARDEGI

URTARRILLAK 3:

(HEZKUNTZA)

- XABIER KINTANA - ADOLFO AREJITA

URTARRILLAK 4:

(ITZULPEGINTZA - GIZARTEA)

- X. MENDIGUREN - KRUTWIG

ELKARKETEN ORGANIZAZIOA:

Goizeko 9etatik 11etara: Lehen ponentzia.
11etatik 11½etara: Atsedenaaldia.
11½etatik 1½etara: 2gn ponentzia.
1½etan: bazkaria.
3½etatik 5etara: Talde lana.
5etatik 7etara: Eztabaldia.
7½etan: Udaleko Batzar Aretuan agerpena herriaren aurrean.

MATRIKULA:

2.000 Eibarkoentzat.
4.000 kanpokoentzat.

AKMeko 0/114969.9 k/kean

3

Inguruko euskalkiak

Izen honekin aipatu nahi ditugunak, bazterretako edo gaurko Euskal Herriaren erztetan diren euskalkiak dira; jakina, eritzi hau honela izaten da gipuzkera erdikotzat hartuz, bai hizkuntza mailan eta bai lurralde mailan; Nafarroa Garaiko hegoaldeko euskalkia bizirik izan balitz, hori izango zen erdiko euskalkia, hizkuntza mailan batez ere.

1. Non eta zertan dagoen batasuna edo bereizkuntza

Zenbat eta atzerantz barrurago jotzen dugun, euskera hizkera mailan batuagoa eta trinkoagoa dugula, honetan sinesten dut. Gaur egun, aditza dugu zatikatzailea gure hizkuntzaren barruan, batez ere aditz laguntzailea. Beste guztian batasuna berehala egin ahal daitekeen gauza dugu.

Baina aditzean ere, zenbat eta zaharragoak diren formak, hainbat batuago ageri zaizkigu. Begira arabar euskalkikoak (nire eritziz arkaikoenak direnak) zer erakusten diguten:

Ni	Gu		Naijz	Gare
Hi	Zu	Zara	Haiz	Zare
Ha	Haiek		Da	Dire

Singularreko hirugarrena *daijz* izango zela hasieran kontutan hartuz, eta oraino ere *dare*, *gire* eta *zire* hein handi batetan behintzat erabiliak direla jakinez, harrigarritzko arautasuna ageri zaigu arabarren aditzean. Eta Bizkaian, Lapurdin, Behenafarroan eta bai Zuberoan ere, forma beroiek dira ageri zaizkigunak, aldaketa txiki batzuek, plurala singularrera igatearen eraginezkoak: *gara*, *zarie*, *zarei*, *gira*, *zira*, etab. Gipuzkera dugu honetan urrunekoena eta nahaspiltsuena, itzuliketaz ageri zaigulako: *gera* eta *gerade*, *zera* eta *zerate*, *dira* eta *dirade*... Arauak arautzat hartuz, argiro ageri zaigu e dugula hor pluralgilea, aintzinakoa, eta plurala singularrera pasatzeak eragin zuen hausketaren ondoren ere, berriz araura jo beharrak sortu izan dituela aldaki asko: *zerate*, *zarie*, etab. Euskera batua eraikitzean hartu izan den erabakia ez da izan txarrena, baina hobea izan zitekeen.

Berriz errepikatzen dut, erroetan dugula batasuna nire eritziz, eta geroago eta gehiago begiratu behar genukeela hizkuntzaren barrurantz.

Euskera barruan zatiketarik gogorrena sorrerari izan duena eta euskalkien artean bereizketak eragin dituena aditz laguntzaileko beste pluralgilea dugu. Begira:

dautzut (ekialdean)	dau <u>z</u> kitzut
dizut (gip.)	diz <u>k</u> izut
dautzut (mend.)	dautzud <u>az</u>

Mendebaldean plurala beti azkenean erabiltea da araua: doaz, dauztazuz, gatoz, da-kidaz, nebazan, dozuez...

Gipuzkeran, aditz laguntzailean beti aurrerantz tartekatua izaten da, eta besteetan (beste aditzetan) bietara: dijoaz, dizkidazu, gatoz, dakizkit, niñuen, diñuzue...

Hauxe dugu euskera zatikatzen duen auzia, baina gaur ez du konponbiderik. Hala ere, irakasgarria da jendeak jakin dezan non eta zertan dagoen bereizkuntza, eta hobeto ulertu ahal dezan.

2) Hitzen sorkerazko idetasuna

Arlo honetako ekintzak gaur arbuiakeriaz ikusiak izaten dira euskalarien aldetik; askakeria asko esan eta erabili izan delako gai honetan, eta oraintxe ere aski esaten direlako izaten da gehienbat jokaera hori; baina askotan astakeriak esan izan direlako bakarrik ezin daiteke arbuiatu ikerbide baten erabilkera, eta hortik sortu daitekeen jakintza eze-tsi.

Zuhurtasunez eta begi argiz jokatzuz, gauza askorentzako giltza izan daiteke hitzen sortzezko esanahia aztertzea. Mailarik apalenean ere, hitz baten barrutikako zentzuaz jabetzeko lagungarri izango zaigu; eta gauza asko argiroago ulertuko dugu: *saratz* sareak egiteko landare bat dela jakingo dugu, *urreiz* urrak ematen dituena, *arantz* aranak ematen dituena, etab.

Horrek susmaeraziko digu ea *eitz* hori zer ote den, eta *areitz*, *zuraitz* eta horrelakoak ere auzitan sartuko ditugu, gure hizkuntzarekiko jakintza hobeteraziz. Honen bidez esan nahi dudana zera da, bide hau ere erabilgarria dela zuhurtasunez jokatzuz gero, eta euskera batuari gotortasuna emateko nahiz gure kultura zaharrean barneratu ahal izateko biderik onena izan daitekeela.

Gaur gaurkoz behintzat, beste gauza batzuen artean, euskaldunen aintzinetako erlijioa zer eta zein izan zen azaltzeko bidea izan dezakegu iturburu horretan jokatzuz.

Etimologiakerietan jardutzea eta hitz kimikoak sorreraztea besterik da, baina gaur ez dugu horren arriskurik eta hobe dugu horretaz denborarik ez galtzea.

Bizkaiera izendatu ohi dutena, baina Mendebaldeko Euskalkia litzatekeena

1) Auziaren erroak

Edonork daki gaur euskera batuaren inguruan sortzen diren adiezin eta gatazka gehien iturburua euskalki honekiko auzietan edo hor nonbait izaten dela. Baina arlo hau oso korapilotsua dugu, auzien sorketan eragile bat baino gehiago izaten delako, agerikoak nahiz izkutukoak, sentipenez egosiak nahiz kalkuluz erabakiak.

Eragile horien artean, euskerarekiko ikerketa sakonik ez izatea izango dugu agian nagusia; eta horren ondorioz, sarritan zurtz aurkitu izaten diren hizkera standarraren bultzatzaileak ere astakeriak egiteko arriskutan ibiltzen dira. Eta astakeria bat egitean hizkuntzaren maitalerik onenak sumindu egiten dira, bidezkoa denez.

Bestalde, eta hau ez da izkutukizun inorentzat ere, beti ditugu tartean politiko edo bestelako taldeak, urak nahasiz zerbait harrapatzeko gerturik izaten direnak; eta hauen zeregina beti izaten da sentimen urratuez baliatzea, gatazkak sorreraztea eta urak beren errotara eroatea.

Eragile hauen artean ezin dugu ahazturik utzi norberekeria. Berau izan dugu agian kalterik gehien egin izan duena, eta ez alde batetik bakarrik. Zenbat ekintza, besteak zauritzeko asmoz eginak, zenbat zitalkeria, jakintzaren izenean erabiliak, baina norbait edo norbaitzu apalerazteko eta norbere oilarkeria haizatzeko eginak. Honetaz gehiegi eza-gutzen dut eta zehaztasunetan ez dut sartu nahi.

Eta euskeraren betiko etsaiak, Gure hizkuntza hila eta ahaztua izan dadila nahi dutenak. Hauek ere muturra sartu ohi dute honelako auzietan, baina ez euskalkiaren edo euskera batuaren alde egiteko, bestelako asmoz baizik.

Jokabide guzti hauen aurrean erantzunkera argi eta garbi bat erabili beharra dugu. Euskeraren etsaiekin, “eso es una aberración” esaten dutenekin, jamonik ez egitea, “entzun eta gor” egitea, ez bait dugu denborarik beroiekin galtzeko. Oilarkerietan ari direnekin, ez jarraitu beroien norberekerietan, eta ahal izanez gero, egiten ari diren kukurrukua ebagi. Nahastale harrapakariekin, berriz, salatu, salatu eta salatu ahal dugun guztietan.

Eta azkenez, bihotz saminduekin, entzun, arretaz entzun, eta arazoa konpontzen aha-
legindu. Arrazoa behin ere ez delako izaten alde batetan bakarrik.

2) Euskalkiaren egoera

Bizkaiera hitzaren orde mendebaldeko edo sartaldeko euskalkia erabili behar ge-
nuke euskalki honetaz ari garenetan. Izan ere, probintzia izen eta usteak ziztrinkeria asko
sortzen dute euskaldunongan eta ondorioak badakizue nolakoak izaten diren.

Bizkai gehiengan, Gipuzkoa zati haundi batetan eta Araban erabilia dugu euskalki
hau, eta Nafarroako egoaldean ere aztarna biziak ditu. Euskaldungoaren ia erdiak (%40
inguruk) erabilia izanik, sineskaitza da benetan zenbaitek euskalki honi buruz duen jo-
kera. Bakoitzak berak ikusi beza, barrurantz begiratuz, ea nolako euskalzaletasunez, zien-
tziaketaz edo gizabidez oinarritzen duen bere jokabidea.

Nire eritziz, euskera motarik arkaikoena dugu, hitzen formarik zaharrenak eskaini-
tzen dizkiguna. Ganera abetsarena ere badugu, nire ustez askoz aberatsena, nahiz eta en-
tzuteko guztien artean itsusiena izan. Beraz, hizkuntza mailako ikerketarik egitea nahi de-
nean, mendebaldeko euskalki honi heldu behar zaio, edo bestela ez dago zereginik, al-
ferreko lana litzateke, eta izaten da gehienetan, hizkuntzalariak honetaz ez direlako kon-
turutzen. Alde hauxe jagotearren bakarrik merezi luke euskalki honek arreta askoz ho-
bea.

Mendebaldeko euskalki hau bat dugu osoan, baina zati ezberdinak bere barruan di-
tuen; galgatzat zer hartzen denean dago edo izaten da gakoa: aditza, deklinakera ala fo-
netika galgatzat hartzen denean. Aditza izaten da ohiz galga bakarra erabilian, baina hori
ere jokera bat besterik ez da.

Deklinakera eta doinukera hartzen baditugu galgatzat, hiru herrialde oso bereziak
ageri zaizkigu: Uribe eskualdea, Txorierrri, Arratia, Zeberio eta Orozko eskualdeak har-
tzen ditu sartaldekoenak, itsasotik Gorbea mendiraino hedatzen delarik. Bermeo eta Le-
keitioko itsaldea, Gernikaldea, Durangoaldea eta Urkiolatik egoalderantz Araban gera-
tzen den euskal arloa dira erdiko herrialdea osatzen dutenak; Bermeotik Gasteizeraino
hedatzen dela esan dezakegu, eta deklinakerarik bihurriena duela. Markinaldea, Deba-
rrua Mendarotik Gatzagaraino, eta Aramaio beheko herriak (Oleta Araba aldekoa da) di-
tugu hirugarren herrialdearen lurraldeak. Oñati geratzen zaigu aparte, nire ustez, bigarren
horretatik hurbilen dagoelarik.

Eredutzat, begira nola egiten den herrialde bakoitzean bokalez amaitzen diren hi-
tzetan:

	Lehenean	Bigarrean	Hirugarrean
a + a =	-ea	-ie	-ia
e + a =	-ea	-ie	-ia
i + a =	-ie	-idxe	-ixa
o + a =	-oa	-ua	-ua
u + a =	-ue	-ue	-ua

Aditz laguntzailean honela ageri zaigu fonetika:

Lehenean	Bigarreanean	Hirugarreanean
yat	dxat	jat

Aditza, fonetika eta doinukera hartzen baditugu galgatzat, Arabakoa bereizten zaigu gehienbat, Oñati ere inguruan duelarik. Arabar hizkera mota hau gaur Otxandion, Oletan, Ubiden, Legutio eta inguruko herrisketan eta Zigoitian (hemen mintzatzaile bakarra geratzen da) erabilten da.

Euskalki honen egoera ez da inola ere pozgarria. Alde batetik Bilbo du bere erdal-tasunaz eragin handia duena, nahiz eta zenbait gaitan euskaltzaletasunaren suaren puz-taile izan. Egoaldean asko galdurik du Araba aldean, gaur muga tinkoturik duela dirudien arren. Eta bestaldetik gipuzkeraren eragina geroago eta indartsuagoa dela dirudi.

Baina alderdirik ilunena zera da, mintzatzaileen ustemenetan halako ustekera ergel bat nagusitua dela aspaldian: bertako hizkera mota arbuigarria dela, itsusia, funtsgabea eta baztergarria. Guztiek ez baina askok horrela pentsatzen dute; “euskerarik onena Tolosakoa” mila bider entzun izan bait dute.

3) Etorkizuna

Euskalki honen etorkizuna oso ilun ageri zaigu gaur, lehen aipaturiko zerengatik, eta arras industriatsutua den lurralde batetan kokatua delako. Euskera batua asmatze orduan bazterrean utzia izan da, eta arbuiatua ere zenbaiten aldetik. Hauek horrelakoetan gertatu ohi diren betiko gehiegikeriak dira, eta badirudi gauzak hobetuz doazela. Behar ere, bestela etorkizunak inoiz bakartu ezingo digun hutsegitea izango litzatekeelako euskalkirik aberatsena bazterturik uztea, gaur eman dezakeen guztia betiko galtzera bideratzea.

Eta amaitzeko, geroago eta garbiago ikusten dudana erizpide bat: Mendebaldeko euskalki hau hiltzen bada, erderak hila izango dela, eta ez euskera batuaren erruz. Arestian ohartzen ari naiz euskera batua irakasten eta ikasten saiatzen diren lekuetan bertako hizkera ere indartu egiten dela, eta beste batzuetan erdera bakarrik nagusitzen dela.

Beraz, Mendebaldeko gazteriari dei egingo nioke, berauen esku dagoelako etorkizuna: arduratu zaitezte, jantzi zaitezte zeuen hizkeraz, eta eskaini itzazue berorren aberastasanak, euskeraren eta euskal jakintzaren onerako izan dadin. Ez uzkurto, ez lotsatu harrogarri dugun zer honetaz, eta ekin gartsuki. Ez liskarrak sortzeko, euskera hobeto eta aberatsago bat lortzeko baizik. Apalki baina tinkoki, ekin eta saiatu, gorra entzuten ikasiko duten arte.

Aurkibidea

1.- Euskera batuaren arazoak	215
1) Hautabideak	215
2) Garabideak	216
2.- Sorbideak eta helburuak	219
1) Izenak izana behar du	219
2) Aukerabideak argitu beharra	220
3.- Inguruko euskalkiak	223
1) Non eta zertan dagoen batasuna eta bereizkuntza	223
2) Hitzen sorkerazko idetasuna	224
4.- Bizkaiera izendatu ohi dutena, baina Mendebaldeko Euskalkia litzatekeena	225
1) Auziaren erroak	225
2) Euskalkiaren egoera	226
3) Etorkizuna	227